

Euskal AEko industria-jarduera %1,3 gehitu zen 2024ko urtarrilean


2023ko abenduarekin alderatuta, produkzioa %3,7 jaitsi da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berekoa baino %1,3 handiagoa izan da 2024ko urtarrilean.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduera %3,7 murriztu da azken hilabeteen, urtaroen eragina zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Energiaren* produkzioa %8,9 igo da 2024ko urtarrilean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoa ekoiztea eta hornidura eta petrolio finzia.

Ekipoko ondasunak ekoiztea, non sartzen baitira ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta tren-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza, %5,4 hazi da, aurreko urteko urtarilaren aldean.

Kontsumo-ondasunek ere urte arteko joera positiboa izan dute 2024ko urtarrilean, produkzioa %0,5 hazi baita sektore osoan. Igoera hori *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* portaerari zor zaio, %2,4ko igoera izan dute eta. Azken honetan daude elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* ekoizpenak, aldiz, %7,3 egin du atzera. Azken horien artean, besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa jasotzen da.

Bitarteko ondasunetan, metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne, %3,0ko urte arteko jaitsiera izan da.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2024

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	1,3	1,3	-3,7
Araba/Alava	-3,3	-3,3	-3,6
Bizkaia	4,5	4,5	-2,3
Gipuzkoa	1,0	1,0	-5,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	0,5	0,5	0,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-7,3	-7,3	-0,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,4	2,4	0,9
Ekipo-ondasunak	5,4	5,4	-3,0
Bitarteko ondasunak	-3,0	-3,0	-3,5
Energia	8,9	8,9	2,1

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarritik behatutako azken hileraren artean (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2024ko Martxoaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, urte arteko hazkunde-maila handiena izan dutenak *Makineria eta ekipoa* (%9,2) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%4,6) izan dira. Aitzitik, 2024ko urtarrilean beherakadarik handienak izan dituztenak *Zura, papera eta arte grafikoak* (%7,4) eta *Kautxua eta plastikoak* (%5,6) izan dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Urtarrila 2024

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	-3,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-7,4
Kaubua eta plastikoak	-5,6
Metallurgia eta produktu metalikoak	-4,6
Materiala eta tresna elektrikoak	3,7
Makineria eta tresneria	9,2
Garraio-materiala	-1,5
Energia elektriko, gasa eta lurruna	4,6

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2024ko Martxoaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2024ko urtarrilean Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, produkzioa %4,5 eta %1,0 igo baita, hurrenez hurren. Araban, aldiz, industri sektorearen produkzioa %3,3 jaitsi da urte artean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **%89,29**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62